

JAKINTZAKO I. LITERATUR LEHIAKETA

Literatur lehiaketa honen helburua honakoa da: Jakintzako maila guztietako ikasleen literatura zaletasuna sustatzea eta idazketa mundura ikasleak bultzatzea eta motibatzea. Honakoak izango dira parte hartzeko bete beharreko arauak.

1. Modalitateak

Hauek izango dira aurkeztu ahalko diren lan motak:

- a. Narrazioa edo mikroipuina: mikroipuina batxilergoko lehenengo eta bigarren mailako ikasleek baino ezingo dute aurkeztu.
- b. Bertsoa edo poesia

Partehartzaile bakoitzak nahi duen modalitatean aurkez ditzake lanak. Alabaina, narrazioa **ala** mikroipuina aurkeztu beharko dute, hau da, ezingo dituzte narrazioa eta mikroipuina aurkeztu. Era berean, bertsoa **edo** poesia egin nahi duten hautatuko dute eta ezingo dituzte biak egin.

Partehartzaile bakoitzak a. eta b. modalitateetan parte har dezake aldi berean. Alabaina, modalitate bakoitzeko lan bakarra aurkeztu ahalko da.

Adibidez, ikasle batek narrazioa eta poesia aurkez ditzake, baina ez narrazioa eta mikroipuina.

2. Mailak

Hiru kategoria egongo dira eta honela banatuko ditugu:

- a. DBH 1 eta DBH 2 kurtsoak
- b. DBH 3 eta DBH 4 kurtsoak
- c. Batxilergoko 1 eta 2. kurtsoak

3. Baldintzak eta formatua

Testuak **euskaraz** idatzirik egongo dira. Lanak **Times New Roman 12** letra tipoan aurkeztuko dira, **1,5eko lerroartearekin** eta testua **justifikatuta** egongo da, hau da, bi aldeetako marjinak berdinduak aurkeztuko dira.

Lanak entregatzeko epea **2023ko apirilaren 24a** izango daia librea iza.

Lan guztietan, **gaia librea** izango du. Bestalde, modalitate bakoitzak baldintza hauek bete beharko ditu:

a) *Modalitatea*

Narrazioa

- DBH 1 eta 2: 2 orrialde gutxienez eta 3 gehienez.
- DBH 3 eta 4: 3 orrialde gutxienez eta 5 gehienez.
- Batxilergoa 1 eta 2: 4 orrialde gutxienez eta 6 gehienez.

Mikroipuina

- Batxilergoko ikasleek bakarrik hartu ahalko dute parte
- 80-100 hitz bitarteko luzera izango du

b) *Modalitatea*

Bertsoa

- Bertso edo kopla guztiak doinu berean idatziko dira eta doinua izenburuaren azpian adierazi beharko da.
- DBH 1 eta 2: 2 bertso edo 4 kopla gutxienez eta 3 bertso edo 6 kopla gehienez.
- DBH 3 eta 4: 3 bertso edo 6 kopla gutxienez eta 5 bertso edo 10 kopla gehienez.
- Batxilergoa 1 eta 2: 4 bertso edo 8 kopla gutxienez eta 6 bertso edo 12 kopla gehienez.

Poesia

- DBH 1 eta 2: 15 bertso-lerro gutxienez eta 25 bertso-lerro gehienez.
- DBH 3 eta 4: 25 bertso-lerro gutxienez eta 35 bertso-lerro gehienez.
- Batxilergo 1 eta 2: 30 bertso-lerro gutxienez eta 50 bertso-lerro gehienez.

4. Nola aurkeztu

Idazlanak irakasle-gelan utziko dira Idoia Granizoren edo Lide Alcalderen mahaien gainean. Lanak anonimoak izango dira. Horretarako, honela aurkeztuko dira:

- Lana izenordez sinatu eta inprimatu.
- Lana gutunazal handi batean sartu.
- Gutunazal handi horren azalean, lana sinatzeko erabilitako izenordea idatzi.
- Gutunazal handian, lanarekin batera, gutunazal txikiago bat sartu.
- Gutunazal txikian izenordea idatzi berriro.
- Gutunazal txikiaren barruan zure datuak idatzi.

Hauek dira gutunazal txikian idatzi beharreko datuak:

- Izen-abizenak
- Maila (DBH 1etik Batxilergo 2ra)

5. Sariak

Kategoria bakoitzean saridun bakarra egongo da. Saridunak Ordiziako Larratxa liburu-dendan gastatzeko 60€ko balea izango du.

6. Sari banaketa

Sari banaketa **2023ko ekainaren 16an** egingo da areto nagusian. Bertan, irabazlea eta bere gela egongo dira; beraz, saridunari aurretik jakinaraziko zaio.